



Lehorreko koadernoak Anjel Lertxundi

Liburua zailtasunik gabe irakurtzen da, oso ondo idatzita dago, noski, eta neurri batean irakurketa atsegina da, baina batez ere Anjel Lertxundiren liburu bat da, horrek berekin dakarren guztiarekin: aberastasun handi bat hizkuntzaren ikuspegitik, eta, senez eta izerdiz landuriko hizkuntza bat, kalitate handikoa berau. Liburuaren tonua, halere, deigarria egin zait, ikastolako edo batxilergoko gaztetxoei zuzenduta egongo balitz bezala...

Helduentzako nobela modura ez da sinesgarria. Badu halako ukitu poetiko bat, niri pixka bat pinpirinegia egin zaidana, eta liburuko tematika ere larregi topikoa dela esango nuke. Nire ustez, liburu hau euskaratik kanpo ez litzateke ibiliko (Kontuz! Euskaraz bai, badabil: ondo idatzita dagoen guztiak irakurtzea merezi duelako). Belarri oneko euskaldunek beti eskertzen duten liburu horietako bat da, Anjel Lertxundik oparitua.